

Karnitina, haragi gorriak eta edari energetikoek osasunean eragiten dituzten kalteen erantzule



Karnitina da haragi gorriak zirkulazio-aparatuan dituen ondorio txarren erantzuleak. ARG.: JAVIER LASTARAS/CC-BY-ND.

Karnitina eta arteriosklerosiaren arteko erlazio frogatu dute Cleveland klinikako ikertzaileek (Estatu Batuak). *Nature medicine* aldizkarian argitaratu duten artikuluaren arabera, hesteetan ditugun bakterioek karnitina metabolizatzen dutenean, trimetilamina-N-oxidoa sortzen dute (TMAO), eta jakina da metabolito horrek aterosklerosia eragiten duela.

Horrez gain, ikertzaileek ikusi dute karnitina askoko dietak karnitina metabolizatzen duten bakterioen hazkundera sustatzen duela; horren ondorioz, kaltea are larriagoa da haragi-jaleentzat, karnitinarik gabeko dieta egiten dutenek baino metabolito kaltegarri gehiago sortzen baitute.

Hain zuzen ere, hiru dieta-mota dituzten boluntarioak aztertu dituzte ikertzaileek: haragia jateko ohitura zuten omniboroak, barazkijaleak, eta beganoak,

hau da, animalia-jatorria duen ezer jaten ez dutenak. Eta frogatu dute TMAO-mailaren eta bihotzako eta zirkulazio-aparatuko gaitzak izateko arriskuaren erlazioa “zuzena” dela.

Bestalde, ikertzaileei aipagarria iruditu zaie beganoek eta barazkijaleek askoz ere TMAO gutxiago sortzen dutela, karnitina-kopuru berdina hartuta. Ikertzaileek ondorioztatu dutenez, “ohiko dietak agintzen du nolako bakterioak ditugun hesteetan”, eta horrek eragin zuzena du osasunean.

Nonbait, ikerketa honek argitzen du zergatik dituen haragi gorriak hain ondorio txarrak zirkulazio-aparatuan, kolesterolean eta gantz aseetan aberatsa izateak ez baitzuen erabat azaltzen hain kaltegarria izatea. Ohartarazi dutenez, emaitzak aintzat hartzekoak dira, ez bakarrik haragi gorri asko jaten dutenentzat, baita edari energetikoak eta karnitina-gehirriak hartzen dituztenentzat ere. ●

Parkinsonaren tratamendu gisa erabil litekeen molekula bat sortu dute

Parkinsonak kaltetu ohi duen garuneko eskualdean neuroinflamazioa eta neuronen heriotza gutxitzen dituen molekula bat sortu dute (S14) Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiak (CSIC) zuzendutako ikerketa batean. Emaitza onak lortu dituzte Parkinsona ikertzeko erabiltzen diren sagu ereduetan, eta aurreratu dute pare bat urtean entsegu klinikoekin has litezkeela, molekularen eragina gizakietan aztertzeko. Florentzian izandako XI. Alzheimerren eta Parkinsonaren Nazioarteko Kongresuan aurkeztu dituzte emaitzak.

“Gaixotasunari loturiko neurona-galera geldi liteke molekula horren eragin-mekanismoari esker” dio Ana Martínez Kimika Medikoko Institutuko ikertzaileak. Hain zuzen, ikerketan ikusi dutenez, neurona dopaminergikoak sortzea eragiten du S14 konposatuak sagu ereduetan. Neurona dopaminergikoak dira, hain justu, Parkinsonak jotako pertsonen pixkanaka galtzen dituztenak. “Dagoeneko hasi gara ikerketa preklinikoa egiteko lanetan, hemendik bi urtera gizakiekin abiatu ahal izateko fase klinikoa”, gaineratu du Martínezek.

Mila pertsonatik batek du Parkinsona gaur egun, eta neuroendekapenezko bigarren gaixotasun ohikoena da pertsona zaharretan, Alzheimerren atzetik. ●



ARG.: ELHUYAR FUNDAZIOA